48 06
ARTXANDAKO JOLAS-PARKEA

Madrilgo Jolas-parkea kudeatzen duen enpresak sustatu zuen *Parque de Atracciones de Vizcaya* parkea, alegia; “Artxandako Parkea” izenarekin ezagunagoa zen parkea, Bilboko itsasadarraren eskuinaldeko mendian kokatuta dagoelako. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udal Aurrezki Kutxa, Bizkaiko Aurrezki Kutxa eta Bankunión bazkide zituen eta horiek guztiek 1972ean , “Parque de Atracciones de Vizcaya S. A.” elkartea sortu zuten.


Parkea 1974ko irailaren 14an inauguratu zuten. Bere lehenengo urteak ekonomikoki ez ziren oso onuragarriak izan, utero aurreikusi zituzten milioi eta erdi bisitariak bakarrik milioi erdira iritsi baitziren. Kopuru hori pixkana jaitsiz joan zen 1988. urtean, urte bakoitzeko 120.000 bisitarien kopurura iritsi zen arte (baxuena), beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak Elkartearen akzioak erostea erabaki zuen, Enpresa salbatzen saiatzeko.

Hainbat hamarkadez, parkea zaintzapean kontserbatu zen, baino denboraren poderioz, hondatzen joan zen. Uneren batean hura saltzea planteatu zen, baina eskaintzarik ez zegoenez, 2015etik aurrera Foru Aldundiak hura eraistea erabaki zuen.

Parkeak mailakatutako aparkalekua zuen mendi magaletan, 1000 ibilgailuetarako. Kanpoaldean, elementurik deigarriena estalitako 7 barrutiak ziren, lau isurkiko teilatuekin, atrakzioetako batzuk barne hartzeko.

Horrez gain, estalkirik gabeko auditorio handi bat ere nabarmentzen zen, 4.000 ikusle baino gehiagorako lekuarekin, eta baita itxura luzetarako igerileku bat ere, solariumerako erantsitako gune batekin.

Horietaz gain, honako hauek ere baziren: noria handi bat, bi karts zirkuitu, Ford auto zaharren zirkuitua,




Ortoargazkia 1984/85. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi; Geografia Erakunde Nazionala.

UTM 30N ETRS89 // X: 510798 m // Y: 4789011 m // Z: 368 m (irudiaren erdialdean).

Artxanda Parkeko zenbait elementuren kokapena :

1. *Aparkalekua. Hura itxi ondoren, Foru Aldundiak, bertako zati batean, berak erabiltzeko eraikin bat.*
2. *Sarrera.*
3. *Zoo.*
4. *Auditorioa.*
5. *Igerilekua eta solairuma (1978)*
6. *Karts zirkuituak.*
7. *Noria*
8. *Ford errail autoen zirkuitu bat.*
9. *Tren “turistikoa”*
10. *“Piramide” itxurako estalkidun atrakzioak*
11. *Errusiar mendia*
12. *Olagarroa.*



"Jolas-parkeko hasierako maketa. Hor, esaterako, igerilekua falta da, 1987. urtean eraiki zelako (5). (Hitzak: ikusi 1984/85eko ortoargazkia).



zoo txiki bat, errusiar mendia, autotxokeen zirkuitu handia, parketik zehar ibiltzen zen tren "turistiko" bat; etxe magnetikoa eta herrietako eta hirietako ferietan aurki ditzakegun antzeko atrakzio ugari.

Iturri argitsu desberdinak ere izan ziren, argi eta zoinuko ikuskizunak eskaintzen zituzten ur-jauziekin eta argi-jolasekin, eta baita animalia mekanikoen erreprodukzioez jositako "ohian" bat, mekanikoki animatuta.

Ortoargazkia 2015. Iturria: Euskko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Parkeak 25 urte zeramatzan jardun gabe.